

LABURPEN EXEKUTIBOA

ARRISKU PENALAK PREBENITZEKO
ESKULIBURUA

GUGGENHEIM BILBAO

1. SARRERA

Guggenheim Bilbao Museoa 1997ko urrian inauguratu zen, eta, geroztik, erreferentzia kultural gisa finkatu da nazioan zein nazioartean, eta kudeaketan osotasunaren eta gardentasunaren adibide izatera iritsi da. Jarduera-protokolo eta barne-kontrolerako protokolo ugari ditu, erakundearen esparru guztietara zuzenduta, eta Etikaren eta Jardunbide Egokien Kode bat ere bai.

2. PERTSONA JURIDIKOEN ERANTZUKIZUN PENALA

Pertsona juridikoen erantzukizun penala Zigor Kodearen Erreformatarako 5/2010 Lege Organikoak arautu zuen Espainiako Zuzenbidean, eta lege horretan, 31 bis artikulua sartu zen. Ondoren, martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoak eta irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoak aldatu zuten.

Araudi horren arabera, pertsona juridikoen honako hauen erantzukizun penala dute:

- (i) Beren izenean edo beren kontura egindako delituak, zuzenean edo zeharka onura izateko; baita legezko ordezkariak edo banaka edo pertsona juridikoen organo bateko kide gisa pertsona juridikoen izenean erabakiak hartzeko baimena dutenek edo erakundearen barruan antolatze eta kontrolatzeko ahalmena dutenek egindako delituak ere (lehen inputazio-irizpidea).
- (ii) Pertsona juridikoen kontura eta zuzenean edo zeharka onura izateko jarduera sozialetan egindako delituak, aurreko (i) puntuan aipatutako pertsona fisikoen agintaritzapean egonda, jarduera gainbegiratzeko, zaintzeko eta kontrolatzeko betebeharrak larriki ez betetzeagatik gertaera horiek egin ahal izan dituztenek, kasuaren gorabehera zehatzak kontuan hartuta (bigarren inputazio-irizpidea).

Zigor Kodeak delituen katalogo itxia egin du, eta horien inguruan erantzukizun penala eska dakioke pertsona juridikoari.

Zigor Kodearen 31 bis artikulua ezarritako kontrol-betebeharra betetzeko, beharrezkoa da enpresak edo erakundeak arrisku penalak prebenitzeko betetze-programa eraginkorra ezartzea.

Betze-programa bat barne-kontrolerako eta zaintzarako sistema bat da, eta enpresari aukera ematen dio, ahal den neurrian, bere barruan delituak egitea saihesteko, edo,

GUGGENHEIM BILBAO

sahiestu ezin badira, horiek egiteko arriskua nabarmen murrizteko edota azkar detektatzeko.

Zigor Kodearen 31 bis artikulua hori martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoaren bidez idatzi zen, eta, bertan, betetze-programa bat eraginkorra izateko beharrezkoak diren baldintzak jasotzen dira.

Irizpide orokor gisa, betetze-programa batek, erakundearen izaeraren eta tamainaren arabera nahiz bertan egiten diren jarduera-moten arabera, jarduera Legeari jarraiki garatzea eta delituak egiteko arriskua prebenitu edo murriztea eta arrisku horiek berehala detektatzea bermatzeko neurriak izan behar ditu.

3. ARRISKU PENALAK PREBENITZEKO BETETZE-PROGRAMA

Guggenheim Bilbao Museoak, konpromiso etikoaren eta araudia betetzearen hurrengo urrats gisa, Arrisku Penalak Prebenitzeko Betetze Programa ezarri du, eta honako arau hauek osatzen dute:

1. Kode Etikoa eta Jardunbide Egokien Kodea.
2. Jokabide-arauak.
3. Arrisku Penalak Prebenitzeko Eskuliburua.
4. Barne Informazio Sistemaren gaineko Politika.
5. Salaketak Kudeatzeko Prozedura.

Betetze Programa aplikatzeko eremuan, Guggenheim Bilbao Museoa osatzen duten hiru erakundeak sartzen dira:

- Guggenheim Bilbao Museoa Fundazioa;
- Bilboko Arte Moderno eta Garaikidearen Museoaren Ukanduna, SL; eta
- Bilboko Arte Moderno eta Garaikidearen Museoaren Higiezina, SL.

Beraz, programa bakarra eta komuna da Fundazioarentzat, Ukandunarentzat eta

GUGGENHEIM BILBAO

Higiezinarentzat. Hori dela-eta, elementu guztiak, arau-arlokoa, organikoak (Betetze Batzordea) zein kontrolekoak (salaketa-kanala, diziplina-sistema) bakarrak dira hiru erakundeentzat.

Zeharka, berriz, programaren hartzaileak dira, baita ere, Museoarekin harremana duten pertsonak eta erakundeak; hala nola, hornitzaileak, bezeroak, aholkulariak, etab.

4. KODE ETIKOA ETA JARDUNBIDE EGOKIEN KODEA

Kode Etikoak eta Jardunbide Egokien Kodeak Museoaren jardura eraentzen duen konpromiso etikoa jasotzen du, Jarduteko printzipioak eta jardunbide egokiak zehaztearekin batera, ikuspegi arduratsu eta etiko batetik Museoko portaera indibidual eta kolektiboak gidatzen dituztenak. Fundazioaren Batzorde Betearazleak eta Patronatuak onartu zuten 2015eko abenduaren 14ko bilkuretan, eta Ukanduna eta Higiezina sozietateetako Administrazio Kontseiluek 2016ko martxoaren 17ko bilkuretan.

Zehazki, Kode Etikoaren eta Jardunbide Egokien Kodearen helburuak hauek dira:

- Eska daitezkeen jarraibideak, pautak eta portaerak islatzea.
- Museoaren eta zerbitzatzen duen komunitatearen arteko harremanak oinarri izan behar duen konfiantza ziurtatzeko jokabideak eta estandarrak formulatzea.
- Jardura-gida bezala balio izatea eguneroko kudeaketan eta lanean eta banakako erantzukizunaren irismena ezartzea.

Kode Etikoa eta Jardunbide Egokien Kodea Museoaren jardura gidatzen duten printzipio eta balio hauen arabera garatzen da:

1. Artearekiko sentsibiltatea eta errespetua
2. Komunitate artistikoarekiko integrazioa
3. Kalitatearekiko konpromisoa
4. Bezeroarentzako orientazioa
5. Orientazio didaktikoa
6. Orientazio ekonomikoa
7. Guggenheim Museoen integrazioa eta lankidetzak
8. Gizartearekiko konpromisoa

9. Pertsonetikiko konfiantza
10. Familiaren aldetik arduratsua den eta aniztasunean pertsonen aukera-berdintasuna sustatzen duen antolamendua

5. JOKABIDE-ARAUAK

Kode Etikoa eta Jardunbide Egokien Kodean ezarritako printzipioak eta balioak kontuan hartuta, Fundazioaren Batzorde Exekutiboak eta Patronatuak ez ezik, Ukanduna eta Higiezina sozietateetako Administrazio Kontseiluek 2016ko ekainaren 20ko bilkuretan onartutako arauak Museoaren kudeaketan, operatiban eta funtzionamenduan esku hartzen duten pertsona guztiek nahitaez bete beharreko portaera-jarraibideak eta arau orokorrak jasotzen dituzte, haien maila hierarkikoa edozein izanda ere, eta, bereziki, langileek, zuzendariak, gobernu-organoetako kideak, boluntarioek, hornitzaileak eta laguntzaileak, Museoarekin duten harreman-motaren arabera. Arauen barruan, arlo hauek biltzen dira epigrafe hauen inguruan:

1. Legeria eta jokabide-betebeharrak betetzea
2. Politika aktiboa izatea diskriminazio-ezean eta aukera-berdintasunean
3. Laneko segurtasuna
4. Gardentasuna kudeaketan eta ustelkeriaren aurkako politika
5. Interes-gatazkak
6. Kapitalen zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzea
7. Ingurumena errespetatzea
8. Konfidentzialtasuna betetzea
9. Jabetza intelektuala eta industrial
10. Artelanak erakusteari buruzko arau orokorrak
11. Artelanak eskuratzeari eta artelanei baja emateari buruzko arau orokorrak
12. Artelanen erregistroari, dokumentazioari eta kudeaketari buruzko arau orokorrak
13. Artelanak kontserbatzeari eta babesteari buruzko arau orokorrak
14. Ikerketari eta artxioboari buruzko arau orokorrak

6. ARRISKU PENALAK PREBENITZEKO ESKULIBURUA

Kode Etiko eta Jardunbide Egokien Kodean eta Jokabide Arauetan Museoko kide guztiek jarraitu beharreko printzipio etikoak eta arau orokorrak jasotzen badira ere, Fundazioaren Batzorde Exekutiboak eta Patronatuak nahiz Ukanduna eta Higiezina sozietateek 2016ko ekainaren 20ko bilkuretan onartutako Arrisku Penalak Prebenitzeko Eskuliburua, arrisku penalak prebenitzeari dagokionean, arau oinarritzkoa eta egituratzailea da.

Eskuliburuaren helburua da Museoan jada ezarrita dagoen betetze-funtzioa osatzea eta delituak prebenitzeko programa eraginkorretarako nazioarteko praktikan ezarritako estandarretara egokitzea, gaur egun indarrean dauden eskakizun-mailetatik haratago.

Era horretan, Eskuliburuak gai horren inguruko alderdi guztiak arautzen ditu: kontrolaren egitura organikoa, arrisku penalen ebaluazioa eta Museoaren barruko kontrol eta prozedura garrantzitsuenak, arrisku horiek prebenitzeari dagokionean, besteak beste. Eta hori guztia kontuan hartuta, gai jakin batzuetarako, Eskuliburuak batzuetan jo dezakeela Betetze Programa osatzen duten gainerako arauetara.

Eskuliburua bi zatitan egituratzen da: Zati Orokorra eta Zati Berezia.

Zati Orokorrean gai hauek jorratzen dira:

- Aplikazio-eremua
- Museoaren jarduera eta horri lotutako arrisku penal nagusiak
- Kontrolaren egitura organikoa
- Betetze Batzordea
- Museoko organo erabakitzaille nagusiak
- Kultura etikoa eta araua betetzekoa
- Betetze Programa ezagutzea eta zabaltzea
- Programaren aplikazioaren jarraipena egitea eta gainbegiratzea

GUGGENHEIM BILBAO

- Programa aplikatzeko eta gainbegiratzeko baliabide egokiak jartzea
- Barne Informazio Sistema
- Salaketak Kudeatzeko Prozedura eta diziplina-sistema
- Programa berrikustea eta etengabe hobetzea

Zati Berezia gai hauek jorratzen dira:

- Museoaren jarduerarekin lotura berezia duten delituak
- Museoaren barruko arau eta kontrol egokiak delitu horietako bakoitza egiteko arriskua prebenitzeko
- Delitu horietako bakoitza egiteko arriskua arintzera bideratutako barne-organoak.

7. BARNE INFORMAZIO SISTEMAREN POLITIKA

Museoaren Barne Informazio Sistema kanalaren bidez, langileek, zuzendariek eta arau-urraketei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babestea arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legearen (informazioa ematen dutenak babesteko Legea) aplikazio-eremuan sartzen diren hirugarrenek ezagutzen duten edozein informazio salatu eta/edo jakinarazi dezakete irregulartasunaren bat edo legearen kontrako egintzaren bat izateren inguruan. Hori guztia Museoaren Barne Informazio Sistemaren Politikan jasotakoaren arabera ([Museoaren web orrialdean](#) eskuragarri).

Barne Informazio Sistemaren arduraduna Betetze Batzordea da, eta Sistema horrek behar bezala funtzionatzen duela ikuskatzeaz arduratuko da.

Legearen kontrako egintzei buruzko jakinarazpenak ahoz, idatziz edo bi modutara egin ahal izango zaizkio Barne Informazio Sistemari. Ahozko jakinarazpenen kasuan, Kudeaketako ordezkariari zuzendu beharko zaizkio.

Idatzizko jakinarazpenen kasuan, berriz, era honetan bideratu ahal izango dira:

GUGGENHEIM BILBAO

- (i) Posta elektronikoaren helbidea: canaldenuncias@guggenheim-bilbao.eus
- (ii) Porta arrunta, gutuna helbide honetara zuzenduta:
GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA
Barne Informazio Sistemaren arduraduna
Abandoibarra Etorbidea, 2, 48009 Bilbao
- (iii) web orrialdean horretarako jarritako [formularioa](#)

8. SALAKETAK KUDEATZEKO PROZEDURA

Komunikazio kanal ezberdinetatik jasotako salaketa guztiak aztertuko ditu aurrez Kudeaketako ordezkariak modu independentean, eta informazio-emailearen nahiz salaketa horiek egitea eragin duen pertsonaren konfidentzialtasuna bermatuko da. Era berean, informatzaileak bere anonimotasuna mantentzea erabakitzen badu, Museoak horrela bermatuko du, informazioa ematen dutenak babesteko Legearen arabera.

Ikerketan zehar, uneoro errespetatu beharko dira salatutakoaren errugabetasun-presuntzioa eta kaltetutako pertsonen ohorea.

Ikertutako arau-haustea egin dela baieztatzen bada, Informazio Sistemaren arduradunak dagozkion zehapenak hartzea proposatuko du, arau-haustearen larritasunaren arabera. Aztertutako informazioa delitua izan badaiteke zantzuak kontuan hartuta, Barne Informazio Sistemaren arduradunak berehala eman beharko dio egintzen berri Fiskaltzari. Informazio horrek Europar Batasunaren finantza-interesei eragin badiezaieke, berriz, Europako Fiskaltzara bidaliko da.

Dagozkion administrazio- edo zigor-zehapenak alde batera utzi gabe, hala dagokionean, dagozkion diziplina-zehapenak ezarriko dira.

Barne Informazio Sistemaren arduradunak errepresalia osatzen duten ekintzak ez gertatzea kontrolatuko du, mehatxuak eta errepresalia-ahaleginak barne, epaitutako gertaeren berri emateagatik.

9. KONTROLAREN EGITURA ORGANIKOA

Arrisku penalen prebentzioaren arloan, Museoaren egitura organikoa honako honetan oinarritzen da:

- (i) Organo komun bat izatea Fundazioarentzat, Ukandunarentzat eta Higiezinarentzat; hots, Betetze Batzordea, ekimen- eta kontrol-ahalmen autonomoekin. Batzorde horren esku utzi da Betetze Programaren funtzionamendua eta betetze-maila gainbegiratzeko lana;
- (ii) Hiru erakundeetako goi-zuzendaritzaren inplikazioa eta lankidetzaren handiena arrisku penalak prebenitzeko eta guztientzat komuna den Betetze Programa ezartzeko eta modu eraginkorrean aplikatzeko; eta
- (iii) Betetze Batzordearen funtzioetarako aurrekontu-zuzkidura eta laguntza emateko langile egokiak.

10. BETETZE-BATZORDEA

Betetze Programa ezartzeari, berrikusteari eta kontrolatzeari dagokienean funtzio espezifikoak dituen organoa Betetze Batzordea da, eta honako hauek osatzen dute: zuzendari nagusia, Giza Baliabide eta Kalitateko zuzendaria, Idazkaritza Nagusiko zuzendaria, Finantzetako zuzendariordea eta Aholkularitza Juridiko eta Barne Kontroleko zuzendariordea.

Hauek dira Batzordearen eginkizunak:

- (i) Betetze Programa aplikatzen dela gainbegiratzea.
- (ii) Museoaren Jokabide Arauetan proposatzen diren aldaketa esanguratsuen berri ematea.
- (iii) Betetze Programan sartzea komeni diren aldaketak urtero ebaluatzea, bereziki arautu gabeko arrisku-eremuak eta hobetu daitezkeen prozedurak detektatuz gero.
- (iv) Museoan delituak egitea prebenitzeko, arau eta barne-kontrol egokiak onartzea proposatzea.
- (v) Betetze Programa behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren jarduerak egitea.
- (vi) Betetze Programaren aplikazioaren gainean aldizka egiaztapenak egitea.
- (vii) Museoko langileek Betetze Programaren inguruan duten prestakuntza gainbegiratzea.
- (viii) Barne Informazio Sistemako salaketak jasotzea eta horiek izapidetzea.
- (ix) Delitua, administrazio-arloko arau-haustea edo Eskuliburuaren arau-haustea izan

GUGGENHEIM BILBAO

daitekeen edozein gertaeraren gainean barne-ikerketak hastea eta horiek zuzentzea eta dagozkion zehapenak ezartzea proposatzea eskumeneko organoei.

- (x) Barne Informazio Sistemaren salaketa-kanalaren bidez egindako salaketa guztien Erregistro Liburua egitea.